


Aretxagazeta



ETA GAINERA...

Ze...ri...

ASTERO GAIA

'Ibarraundi museoa' ja
diote / 08

INGURUENA

Aizkorri-iratz parkean
alegazioak / 09

LEINTZ GATZAGA

Armarria jarri dute
pilotalekuan / 10

JON ESCOBALES

GURPILDUN AULKIA ALDEAN HARTU ETA INDIARA

OSOKO BILKURA: EZETZA ARETXA PLATAFORMARI/4 • ASTE SANTUA: ELIZKIZUNAK/5

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 30
ITURRALDE, Belorrieta 1..... 943 79 27 22

DOMEKA, 31
ITURRALDE, Belorrieta 1..... 943 79 27 22

TELEFONOJAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzaila 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Institua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxio ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLÃO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA
Baserrietan sortutako plastikoko batuko dituzte martitzen arratsaldean, martxoak 22. Lausittan, Izurietara dagoen bidegurutzetik 100 metrora; Arkarazoko bide parean eta Oroko bidegurutzean jasoko dituzte.

AUTOESTIMA TAILERRA
Autoestima tailerra antolatu du Udalak emakumeendako. Apirilaren 7an hasi eta ekainaren 9an bukatuko dute, eta bi ordu iraungo duten hamar saio izango dira, eguenetan guztiak, musika eskolan. Pepa Bojok emango ditu eskolak.

BEGIRALE IZATEKO IZENEMATEA
Uztailen udaleku irekietan begirale izateko izena emateko epea zabalik dago. Bete beharreko baldintzak: 16 urte beteta izatea eta euskaraz jakitea. Curriculumak apirilaren 1a baino lehen bidali Kultura Sailera, edo kultura@aretxabaleta.net helbidera.

SAHARAKO UMEAK HARTZEKO FAMILIAK
Saharako lau ume ekarri gura ditu Udalak uztail eta abuztuan. Horiek etxeetan hartzeko familiak behar ditu. Interesa izanez gero deitu Ongizate Sailera 943 71 18 62 edo Arrasateko Nubi elkartera 685 72 48 16.

LORAMENDIRENAGENDA

TXIAPASEN GAINEKO EMANALDIA
Gorka Quebedok Txiapasen gaineko emanaldia eskainiko die udaletxe zaharrera hurreratzen direnei apirilaren 7an, eguena, 19:00etan.

'ARRAKALAK' ANTZEZLANA
Bihotz Bakartien Klubak eskainita Arrakalak antzezlana egingo dute apirilaren 15ean, egubakoitza, 21:30ean, udaletxe zaharrean.


ORAINDELA 10 URTE ARETXABALETAN

Zuhaitzaren Egunean 34 haritz landatu zituzten

Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten martxoaren 16an, eta Udalak emandako 34 haritz landatu zituzten Kurtzebarri eskolako neska-mutikoei trenbideko pasealekuan. Aretxabaleta izena harizti asko zegoelako hartu zuen gure herriak, eta hori gogorarazi gura izan zuten.



LIBURUTEGIKOTXOKOA



EGUZKI BELTZAREN SEKRETUA

Alberto Ladrón Arana
Elkar, 2004
313 orrialde


Espainiako gerra amaituta Oskar ihes eginda dago, euskal espioitza sareak lan berezi bat egiteko deitzen dionean. Haren atzetik Del Valle espia espainiarra ari-tuko da. Bigarren Mundu Gerra oraindik hasi gabe dagoela, erlijioa, grial eta horrelako sinetzeriekin zerikusia duen misterioa argitu beharko du Oskarrek, eta tartean abentura eta arrisku izugarriak bizi izango ditu. Nobela entretenigarria eta azkar irakurtzen den horietakoa, ekintza eta elkarrizketa ugariarekin.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Leuntasuna"

Leuntasuna
—Arek estau
leuntasun askorik
ibiltzen umiekin



JON IRAEGI

Adi!

EKAINAREN 7tik AURRERA
**Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!**

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.



Iber

★ Loteria ★
✿ Paper denda ✿
✱ Liburuak ✱

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39


GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Jou Díaz
Harakina


Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA



ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarle 9 • Aretxabaleta
Tel.: 943 79 92 01

ATREBENTZIAEZPADA/ Kanpora fateko asmorik badauketzu Aste Santuetako oporretan? Nora?



JOSE INAZIO GARAI
Langillie

Bai, sei bat egun fango naz kanpora emaztiez eta seme-alabez. Ezkarain, Errioxan, pasauko dittugu horreik eguntxuok lasaittasun osuen, eta deskantsetako asmue dauket.



ANA GUERRERO
Langillie

Ez, ezin naz fan iñora. Aretxabaleta da, gaiñera, daunik eta herri polittina, eta zertarako fan kanpora? Eguraldi ona egin daixela umiek kanpuen ibiltzeko, eta nehikue da.




ANGEL HIDALGO
Langabetue

Ez, lan barik nau, eta aurten behintzet ezin izengo naz kanpora fan. Eguraldi ona egin daixela eskatuko neuke, eta herri inguruen ibilliko gare hamen gerketan garenok.



ELOISA LOZANO
Langillie

Ez, aurten ez naz iñora fango. Beste urte batzuetan aprobetxau izen dittugu jaiegunok eta kanpora fan, baiñe aurten beste egitteko batzuk dittugu eta ezin gare iñora fan.



IÑAKI ARBULO
Langillie

Ez, jaiegunek bakarrik dittut jai, eta egun gutxi dienez hamen gerketie pentsau dot. Eguraldi ona egitten badau baso aldera fango naz, zelanbait pasau biherko dou-eta denporie.



MARI CARMEN ROMERO
Langillie

Ez, aurten ez. Extremadura aldera eta Tenerifera fan izen naz, baiñe ama geixorik dauket eta azken urtiotan ez dot urten herri-ttik. Ia eguraldi ona egitten duskun...

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK EGINBEHARRAK LORATEGIAN Orain dela hilabete batzuk onartu zuen udalbatzarrak animalien gaineko ordenantza, baina bete oraindik gutxi betetzen dute. Txakurren kakez beteta ditugu herriko lorategi gehienak, guztiak ez esatearren. Gogoratu jabeok, kaka eginez gero jaso egin behar dituzuela gorotzak, eta horretarako poltsatxoak ematen dituzte udaletxean. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Aretxari ezetza eman zioten

Aretxak Udalean lan egiteko mozioa aurkeztu zuten, baina EAJK, PPK eta PSEK ezetza eman zioten.

ASTEAN BEHIN /05

Elizkizunak Aste Santuan

Hainbat elizkizun egongo dira Aste Santuan. Izurietara gurutze-bidea egingo dute Ostiral Santuan.

KIROLAK /06

Aretxabaletako txirrindulariak

Dorletako Ama Txirrindulari Taldeko infantilak eta alebinak aretxabaletarrak dira.

ASTEKODATUA

10

SAIO EGINGO DITUZTE AUTOESTIMA LANTZEKO


Autoestima tailerra antolatu du Udalak emakumeendako. Apirilaren 7an hasi eta ekainaren 9an bukatuko dute. 2 ordu iraungo duten 10 saio izango dira, eguinetan guztiak, Musika eskolan.

BESTEKEESANA

“Esnatu ostean neska bat etortzen zait etxera jantzen laguntzeko. Komunera eramaten nau, eta neu bakarrik moldatzen naiz han. Etxean ez dut beste ezertarako laguntzarik behar. Jantzi ostean egunari ekiteko gertu egoten naiz. Eguraldi ona egiten badu bueltatxo bat ematen dut, lagunekin gelditu; izan ere, kalezalea jarraitzen dut izaten. Gero errehabilitazioa egitera joaten naiz. Etxean igogailua daukat, eta atartetik ateratzeko arrapala egin zidaten, hortaz, ez daukat arazorik. Tabernetan sartzeko, etxe albokoan izan ezik, laguntza behar izaten dut, eta askok laguntzen didate. Oso ondo portatzen da jendea; batzuek ez dute jakiten zela lagundu, baina esanez gero beti lortzen dute.

JON ESCOBALES
Arrasate Irratia/05-03-15

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



Tranbia

B adatorrela tranbia! Eta tranbiarekin batera eztabaida ugari!

Tranbia ipini behar zela lehenengo aldiz entzun nuen, pentsatu nuen: beno bada agian horrela ez dugu hainbeste erabiliko automobila, horrek bailarako kutsadura asko jaitsi dezake, eta gainera, bailaran lan egiten duten herritarrentzat mugitzeko abantaila ederra izango dela ematen du; era berean, gaur egun daukagun garraio publikoa ere hobetu dezake (azken hau ez da oso zaila!). Zenbait zalantza ere eduki nituen, gaur egun, bailara honetan autoarekiko dagoen menpekotasuna ikusita ez baitakit tranbiak arrakasta handirik edukiko duen, baina noski, gauza guztiak bezala, apustua egin behar da, eta aukera ona ematen du.

Ez zitzaidan hainbeste gustatu tranbiaren ideia nondik pasatzeko asmoa zegoen jakin nuenean. Niri, Durana

eta Mitarte kaleetatik pasatzea ez zait batere egokia iruditzen. Gure herriko alde zaharra da, komertzio gehien, taberna gehien eta azken finean bizitasun gehien daukan elkargunea. Aretxabaletako kale horietan dago saltsa gehien, hemen egiten dira erosketak, zamalana, poteoak, jaiak... eta hemendik tranbia pasatzen uzten badugu, agur bizitasun guzti horri, tranbiak eramango du...

Ez da erreza, eta argi dago denon gustura inoiz ez direla gauzak egiten baina beste aukera

batzuk sakonki aztertu beharko genituzke, ahal den heinean, herriaren bizitza hainbeste aldatuko ez dutenak aukeratzeko.

Tranbia aretxabaletarron bizitza hobetzeko izan behar da, baina horretarako tranbia Aretxabaletako bizitzara egokitu behar dugu; egunero aretxabaletarrok Aretxabaletan eramaten dugun bizitzara, bestela hobeto dagoenetan jarraitzea.

“Aretxabaletarron bizitza hobetzeko tranbia Aretxabaletako egunero bizitzara egokitu behar dugu”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Oporrak gainien

Hau da hau udabarri girue. Orain dala hamar egun edurretan genbitzen, eta oin berokixek sobra. Hala eta be gurau hola, beste umore batekin hasten dutzet-eta egunei. Oporrak be gainien dittugu, eta pozik hartuko dou eguraldi ona. ARETXAGAZETAk gaur hartuko ditte oporrok, eta neuri be emun dustie. Gaiñera, opor ostien, kanbixaute ei dator gure aldizkarixe. Esan dustienez, Ze barriz gain, Arrasate Press eta Txirritola be etorriko die batera. Izengo ete dot nik lekuri? Jakin ez.

Kirolarixek gogor ebitzela esan nutzuen fan zan astien, eta halaxe jarraiketana daue. Aste Santuen be ez dittue opor haundirik hartuko. Aitor Alcaide xake jokalarixek txapelketie jokatuko dau Donostin, Dorletako Amataldeko txirindulari gaztienak pazko aste ostien hasiko daue denboraldixe eta gogor entrenau biherko daue. Trialsiñekuek Gipuzkoako txapelketie bukatuko daue domekan, eta hurrenguen Euskadikue hasiko daue, eta futbol jokalarixei be ez dutzie jairik emungo. Hortaz, jai bai baiñe lana be egin biherko daue gure gaztetxuek.

Oporrak dittuzuenoi ondo pasau eta bueltan etorri. Ia eguraldixek lagunketan duskun, eta pozik gatozen danok.

OSOKO BILKURA/ Aretxaren izenean Aralarrek aurkeztu zituen beste hiru mozioak ere ez zituzten onartu

Aretxak Udalean lan egin dezan Aralarrek aurkeztutako mozioari ezetza eman zioten

MIRARI ALTUBE

Ohiko osoko bilkura egin zuen astelehenean udalbatzarrak. Lau mozio aurkeztu zituzten, hiru Aretxa plataformaren izenean eta Aralarrek laugarrena, Aretxak Udalean lan egin dezan eskatuz. EAJk, PPK eta PSEk ezezkoa eman zieten guztiei, eta giroa berotu egin zen.

Eusko Alderdi Jeltzaleko zinegotzi bi izan ezik gainerako guztiak elkartu ziren osoko bilkuran, eta 13 gai eztabaidatu zituzten.

ARETXA PLATAFORMARI EZETZA

Orain arte ahotsik izan ez duen Aretxa plataformak Udalean lan egin dezan mozioa aurkeztu zuen Aralar alderdiak. Aretxarekin berarekin eta Ezker Batuarekin adostutako mozioa zen, Alderdien Legeari aurre eginez ordezkariak barik geratutako herritarren ahotsa kontuan hartzeko.

Lau eskaera egin zizkioten udalbatzari mozioaren bitartez: Plataformako ordezkariak Udal organoetan parte hartzeko eskubidea izatea alkateak baimenduta; euren iritzia kontuan hartuta hartzea erabakiak Udalak; Aretxako ordezkariak lan egin dezaten baliabideak jartzea: postontzia, lokalak...; eta Udalak publikoki aitortzea Aretxako ordezkariak herritar multzo baten ordezkari direla.

Arritxu Oliden alkateak eskatutakoa legearen kontra doala erantzun zien. Hala, zinegotzien eskubideak jasotzen dituen legearen berri emateko esan zion Xabier Mendizabal idazkariari.

Bai Aralarreko ordezkari Xabier Sarasuak bai Aretxa plataformako Iñaki Iturrik borondate falta egotzi zioten EAJri; legea hautsi barik, eta borondatearekin, lan egiteko bidea topa daitekeela esan zioten Arritxuri. Aretxak, gainera, euren dagoen zinegotzia erabili egiten dutela bota zion. Bozketa egin zuten, eta Aralarreko hiru zinegotziak eta Ezker Batukoak bakarrik azaldu ziren alde; gainerako seiak aurka egin zioten.



Aretxa plataformako hainbat kide eta autobidea pasatuko den lurren jabe batzuk azaldu ziren asteleheneko osoko bilkuran.

BESTE HIRU MOZIO

Aralarrek beste hiru mozio aurkeztu zituen Aretxakoen izenean. *Estatus politikoaren alde, Euskal Presoak Euskal Herrira; Euskal gazteria Madrilan epaitua eta Abiadura Handiko Trenari aurre*

egin. Ez zuten bat ere onartu. Lehenengo bien kasuan Aralarrek eta Ezker Batuak eman zieten baiezkua, eta EAJk ordezkio beste mozio bi aurkeztu zituen. AHTren gainerakoari erantzuna eman zion Arritxuk, garapen

iraunkorraren bidetik mugikortasunaren arazoa arinduko duela esanaz. Aralarrek bakarrik eman zion baiezkua hasierako mozioari. Plataformakoen mozioak zirelako esan ziela EAJk ezetza esan zuten Aretxakoen, haserre.

Batzordea autobideko lanak jarraitzeko

Eibar-Gasteiz autobideko lanei jarraipena egiteko batzordea sortzea erabaki zuen udalbatzak. Helburua da autobidearen laneak ahalik eta kalte gutxien eragitea bai Aretxabaletari, bai herritarrei. Hori horrela, behin betiko proiektua onartu aurretik, behar diren alegazioak landu eta Bidegiri aurkeztea onartu zuten. Aretxabaletarrei Udalarekin batera parte hartzeko, lan egiteko eta eragiteko aukera eskaintzea ere onartu

zuten, eta erabakia Udalari badagokio ere, batzordeari gaia bideratzeko konfiantza emango diote.

Aipatutako batzordea irekia izango da, baina gutxienez ondorengoak egotea proposatu zuten: udal talde bakoitzeko ordezkari bana, Aretxako ordezkari bat, lurjabeen ordezkari bat eta interes sozialeko taldeen ordezkari bat (ekologistak...). Funtzionatzeko era, bestalde, batzordeak berak erabakiko du.

**BENGOA
URDAITEGIA**

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79



Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETAKO

JAUSORO OSTATUA




Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETAKO

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAKO

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko



ELIZKIZUNAK/ Gurutze-bidea egingo dute Izurietara Egubakoitz Santu egunean

Otoitzari tartetxea egingo diete herriko kristauek hurrengo egunotan

M.A

Egunean hasi eta domekara bitartean otoitzerako eta isiltasunerako egunak izango dituzte kristauek. Pastoral barrutiak urteroko hitzorduak jarri dizkie: Egubakoitz Santu egunean gurutze-bidea egingo dute eta Zapatu Santuan Pazko Gaubeila ospatuko dute.

Etzi, martxoak 20, Erramu Domeka ospatuko dute kristauek. Hala, erramuak bedeinkatuko dituzte 11:45ean, parrokiako elizpean, eta gero meza esango dute. Martxoaren 24tik 27ra bitartean, ostera, Aste Santuko jaiegunak ospatuko dituzte herriko kristauek. Hitzordu ugari jarri dizkie pastoral barrutiak.

ELIZKIZUNAK EGUENETIK DOMEKARA
Eguen Santuan hasiko dituzte Aste Santuko elizkizunak, eta bakarka aitortzeko aukera izan-

Gurutze-bidea egingo dute parrokiatik Izurietara Egubakoitz Santuan

Otoitzerako une bereziak gertatuko dituzte agustindar mojek egubakoitz eta zaturako

go du gura duenak parrokian. Bakearen gaineko hausnarketa egingo dute 16:00etatik 17:30etara, eta gero Jaunaren azken afa-

riko eukaristiak egingo dira bai parrokian, bai komentuan. Egubakoitz Santuan eta eguraldiak laguntzen badu, gurutze-bidea egingo dute Izurietara; 11:00etan izango da. Dagoeneko bederatzigarren aldiz egingo dute. Arratsaldean, ostera, Jaunaren nekaldiko ospakizunak egingo dira.

Zapatu Santu gauean Pazko Gaubeila ospatuko dute: parrokian 21:00etan eta komentuan 22:00etan. Parrokian, gainera, ume txikiak bataiatzeko aukera izango dute gurasoek.

Otoitza eta isiltasuna izango dira nagusi Jesusen heriotza eta piztuera gogoratzeko. Horregatik, ospakizun horiez gain, otoitzerako une bereziak gertatuko dituzte agustindar mojek egubakoitz eta zaturako. Bukatzeko Pazko Igandean bi meza esango dituzte: komentuan, 09:00etan eta meza nagusia, parrokian, 12:00etan.

ELKARRIZKETA

JOSE ANJEL ANTIXIA/INGURUMEN ZINEGOTZIA

“Tokiko Agenda 21ek partaidetza behar du”

M.A

Tokiko Agenda 21 aurkeztu zuten martitzenean, eta 20 lagun elkartzu ziren aurkezpenean. Diagnostikoa egiten dabilta Udalean, eta bukatutako foro bat sortuko dute, zela eroan aurrera erabaki eta jarraipena egiteko.

Zer da Tokiko Agenda 21?

Garapen iraunkorraren kontzeptuan du oinarria, eta hori gauzatzeko bidea da. Etorkizunerako programa bat da.

Eta garapen iraunkorra?

Egungo beharrak asetzeko gaitzen garapena da, baina hurrengo belaunaldiak euren beharrak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri barik. Guztion arazoa da, eta ez dago ingurumenari bakarrik lotuta. Ingurumena, ekonomi garapena eta giza justizia jasotzen ditu, hau da, hezkuntza, ongizatea...

Zela jarriko da abian Tokiko Agenda 21?


Lau pauso izango ditu prozesuak: diagnostikoa egin; ekintza plana diseinatu; ekintzen zerrenda egin eta neurri zehatzak hartu; eta bukatzeko jarraipena egin.

Diagnostikoa zela egingo duzue?

Herriko arlo guztiak aztertuko ditugu, hau da, ekonomi arloa, ingurumena, hezkuntza... Azterketa sakona izango da, eta diagnostikoan oinarrituta ekintza plana diseinatuko dugu.

Aretxabaletan zela dago prozesua?

Dagoeneko pauso batzuk egingo ditugu; izan ere, aurreko agin-



M.A

taldian jarri zuten abian. Udaltalde 21 Debagoiena taldean dago sartuta Aretxabaleta, eta diagnostikoa egiten gabilta. Zirriborroa nahiko aurreratuta dugu, eta laster aurkeztuko dugu. Hala ere, herritarren partaidetza behar dugu prozesuak aurrera egin dezan.

Zeinek eroango du aurrera?

Batetik erakundeak daude, Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia eta Mankomunitatea, eta bestetik Udala dago politikari eta teknikariek. Aholkularitza lanak, gainera, Ingurune enpresak egingo dizkigu. Garrantzitsuenak, baina, herritarrek dira. Tokiko Agendaren ekintza plana diseinatzeko herritarren partaidetza behar-beharrezkoa da, eta eztabaida talde bat edo foro bat sortu gura ditugu horretarako. Diagnostikoa bukatutakoan, bi hilabete barru, herritarrei egingo diegu dei eztabaida taldea sortzeko.



Ikastetxeetako ume eta gaztetxoek eskuz esku ibili zuten lekukoa

Eguazten gauean pasatu zen guretik Korrika, baina berandutxo ume eta gaztetxoendako. Hala, arratsaldean egin zuten Korrika Txikia ikastetxeetako umeek. Musika eskolan hasi eta Herriko Plazan bukatu zuten ibilbidea. Horren ostean, tailerrak izan zituzten jolas egiteko, eta bukatzeko buruhandiak. Jai giroa izan zen herrian bai arratsalde, bai gau partean. /M.A


“Garapen iraunkorra guztion arazoa da, eta ez dago ingurumenari bakarrik lotuta”

“Ekintza plana diseinatzeko herritarren partaidetza behar-beharrezkoa da”

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAleta • TEL. 943 79 32 34



*Matikua
jatetxea*

Azatza auzoa
ARETXABAleta
943 79 16 68

**JAR EZAZU
HEMEN**

**ZURE
PUBLIZITATEA
TEL.: 943 79 86 21**

Aretxagazeta

TXIRRINDULARITZA

Zazpi aretxabaletar daude Dorletako Amako infantil-alebinen taldean

Apirilean hasiko dira lasterketak jokatzeko, eta 12 inguru izango dituzte denboraldian

M.A.

Martxoaren 5ean egin zuten bailarako txirrindulari taldeek aurkezpena. Hainbat aretxabaletar ibiliko dira bizikleta gainean, horien artean Dorletako Ama Txirrindulari Taldeko bost infantil eta bi alebin. Josu Beitia gatzagarraren aginduetara egingo dute lan.

Bailarako txirrindulari taldeak hasi dira lanean, eta Dorletako Ama Taldeko mutikoak ere gertu daude bizikleta gainean ibiltzeko.

INFANTILAK, ALEBINAK ETA KADETEAK

Infantilen taldea daukate aurten Dorletako Aman. Bost infantilek eta alebin bik osatutako taldea da, eta guztiak dira aretxabaletarrak: Markel Uriarte, Jon Ander Guerrero, Ander Anduaga, Jon Etxebarria, Martin Berrizbeitia, Asier Urotz eta Josu Aranbarri. Josu Beitia gatzagarraren aginduetara egingo dute lan, eta ilusio handiarekin ekingo diote denboraldiari. Hain zuzen, apirilaren erdi inguruan izango dute lehenengo lasterketa, eta 12 inguru izango



Infantilek eta alebinek talde bakarra osatu dute, eta Josu Beitiak entrenatuko ditu.

dituzte, guztiak ibilbide itxietan. Ondo pasatzea eta ikasten joate beste helbururik ez dute izango.

Kadeteen taldean, bestalde, beste aretxabaletar bi daude: Xabier Sierra eta Julen Galiano. Jose Jabier Sedano dute entrenatzailea, eta haren laguntzailea

Asier Bengoa da. Esperientzia-dun txirrindulariak dira, eta lasterketetan aurrean ibiltzeko asmoa daukate: "Lasterketaren bat edo beste irabaztea gurako genuke. Gainera, taldeen arteko txapelkunak izateko beste garaile uste dut", dio Asierrek.

FOTOKIROLA



Hamasei gaztetxo karate erakustaldian

Hamasei gaztetxo elkartu ziren joan zen zapatuko karate erakustaldian. Beroketa lanak, hankekin eta eskuekin egindako teknikak, kumite edo borrokarako teknikak, egur-apurketak, luzatze-ariketak, erorketak eta beste hainbat karate lan erakutsi zizkieten guraso eta lagunei. Haiek txalo zaparrada eskaini zieten, eta irribarrea ere bati baino gehiagori atera zitzaion semea edo alaba lurrean ikustean. /M.A.

TRIALSINA

Domekan Oñatin egingo duten probarekin bukatuko dute Gipuzkoako Txapelketa

Laugarren proba egin zuten joan zen domekan, Urretxun, trialsinako txirrindulariek. Hirugarren postuan geratu zen infantilen mailan dabilen Markel Uriarte, eta bigarrenen alebin mailako Aitor Murua. Neskei dagokionez, bigarren postua lortu zuen Oihana Aldaik eta laugarrena Nagore Uriartek. Benjaminetan, ostera, Unai Zuntzunegi izan zen txapelketa, eta Iker Mendikute laugarren geratu zen. Etzi, domeka, jokatuko dute Gipuzkoako Txapelketako azken proba Oñatin. Aretxabaletarrak oso ondo ibili dira txapelketa guztian, hortaz, bat baino gehiago egongo dira sailkapeneko aurreko postuetan.

PILOTA

Errasti anaiek eta Lasagabaster eta Alzolak gaur bukatuko dute Udaberri txapelketako liga

Lehen mailako nagusiek gaur, egubakoitza, bukatuko dute Udaberri Txapelketako liga. Ikusi egin behar orain kanporaketak jokatuko dituzten, baina ez dute denboraldi ona egin eta zaila izango da. Bai Lasagabaster eta Alzolak, bai Errasti anaiek Azpeitiko Illunbe elkarteko pilotariak izango dituzte aurrez aurre. Partiduak, gaur izango dira, 19:30ean, Iturrigorri frontoian.

Uriarte eta Oionek, ostera, domekan jokatuko dute partidua Azpeitiko Ikasberri elkarteko pilotarien aurka, 12:00etan, Iturrigorri frontoian. Hauek oraindik ez dute bukatuko liga.

XAKEA

Azken partidua galdu egin arren seigarren postuan bukatu du denboraldia Arlutzek

Bukatu du denboraldia Arlutz Xake Taldeak. Azken partida galdu egin zuen liderraren aurka, Donostiako Gros taldea, 0,5-3,5; hala ere, seigarren postuan bukatu du. Denboraldi polita egin dute Arlutzeko xake jokalariek. Fran Miguelek, esaterako, ez du partida bat ere galdu, eta talde bakoitzeko onenak izan ditu aurrean.

Donostiako Nazioarteko Txapelketa Irekia jokatuko dute bihar, martxoak 19 hasi eta 26ra bitartean, eta Arlutzeko jokalaria den Aitor Alcaide joango da jokatzerara. Behin baino gehiagotan jokatuko du Donostiako txapelketa, eta atzerritik etorritako aurkari indartsuak izango ditu aurrean aretxabaletarrak.

PARTIDUAK

FUTBOLA

EHU-UDA
Preferentea.
Domeka. 16:30. Donostia.
UDA/Arizm.-Oiartzun
Lehen mailako kadeteak.
Zapatua. 15:30. Ibarra.
UDA/Arizm.-Beti Ona
Bigarren mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Illunbe1
Aretxab.-Illunbe2
Lehen mailako nagusiak.
Egubakoitza. 19:30. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Touring 1
Preferentea.
UDA/Arizm. 0 Allerru 2
Lehen mailako gazteak.
Añorga 4 UDA/Arizm. 1
Lehen mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 3Orioko 1
Bigarren mailako kadeteak.
UDA/Arizm. 2 Ordizia 0
Infantil ohorezko mailak.
UDA 4 Eibar 3
Alebinak.

Almen/UDA 1 Zumaiako 2
Emakumezkoen liga (igoera).
Urki 2 Almen/UDA 1
Emakumeen F-8 liga.

PILOTA

Udaberriko Pilota Txapelketa.
Bergara 12-Aretxab. 22
Bigarren mailako nagusiak.
Azkoitia 22-Aretxab. 15
Lehen mailako nagusiak.
Elgoibar 17-Aretxab. 22
Lehen mailako nagusiak.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

PAGALDAI

Opari denda
Burrindegia

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14



Herriko plaza z/g ARETXABALETA

HURRETIK



Bixente Pagoaga

Eguraldi iragarlie

Areantzako Mitarte-Garai landetxe erueten dau, eta oin dala hillebete batzuk hasi zan GOITBko *Behazulo* saiuen eguraldixe iragarten. Neguek ez ziela horren gogorak gogoraketan dau, eta urtaruek gehixau ezberdinketan zien lehen.

Noix agertu zitzen lelengo aldiz telebisiñuen?

2004ko udazkenien GOITBko *Behazulo* saiotik etorri jation, eta agertu egin biher nitzela esan eustien; halaxe, gaur arte.

Zelakue da esperientzia?

Oso gustora urtetan dot eguraldixen gainien berba egitten.

Ze hartzen dozu kontuen iragarpenak egitteko?

Gauza mordue. Ilargixe oso kontuen eukitten dot, adibidez. Eta animalixei be begiraketan dutziet. Izen be, euren jarrerie zelakue dan ikusitte igerten da batzuetan ze eguraldi egingo dauen.

Eta asmaketan dozu?

Oso gatxa izeten da, baiñe ahaleginketan naz. Eguraldixe jaun eta jabe da halako kontuetan, eta gure dauenien aldatu egitten da.

Negue hasi aurretik, uste zeuen halakorik egingo zeuenik?

Egixe esan susmue baneuken. Esaera zahar bat badau, *Ez kur urte, edur urte*, eta egoerie ikusitte, edurtien zain egon naz.

Ardixek be badauketzu. Zela pasau daue eurek negue?

Txarto. Eurendako oso gogorra izen da horrenbeste edur egittie. Denpora luzien egon die barruen, eta kanpuen egoteko animalixak die. Nahiz eta jateko ohikue baiño bi aldiz gehixau emun, txarto pasau daue.

Sukaldien ondo moldaketan zarela entzun dot.

Asko gustetan jat. Landetxien sukaldie geuken lehen. Baiñe ez bazau iñork lagunketan kantsau egitten dauen lana da. Horregaittik itxi geuen sukaldie Mitarte-Garain.

Negu honekin, jente asko euki dozue landetxien?

Oso gutxi, baiñe normala izeten da neguen.

Zelakue izengo da udabarrixe?

Hobetxe aldera egin arren ondiokan edurte bat geraketan dala esango neuke.

Ze dauko Areantzak espeziala?

Leku lasaixe dala, garbixe eta oso ondo zaindute dauela.

Bizi leike baserritik gaur egun?

Oso gatxa ikusten dot; ordu asko eskaketan dauen bizimodue da, eta jentiek gureu dau ordu gutxiau lan egin eta diru gehixau irebazi...


ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA / Jon Escobales

India / 2004ko urria

Lehenengo bidaia izan zen Jonendako urrian egin-dakoa. Orain dela bi urte istripua izan eta gurpildun aulkian dagoenetik lehenengo bidaia. Bere burua probatu gura zuen, eta nora eta Indiara joatea erabaki zuen lagun batekin. "Antolatutako bidaia hartu genuen ez nekielako zer topatuko nuen, baina konturatu naiz lagun batekin bakarrik lasai ibil naitekeela", dio Jonek. Delhin, Indiako hiriburuan, hasi zuten bidaia. "Guk hiria ezagutu gura genuen, eta Indiako bizilagunek nire aulkia. 200 lagun inguru hurreratu zitzaizkidan aulkia eta ni ukitzera. Hasieran kezkatu egiten nintzen, baina segituan ohitu behar". Mongoliarrek egindako tenplu bat ikustera eraman zituzten, eta aulkian ezin zitekeela sartu esan zioten: "Ondo zain iezadazu, esaten nion gidariari, hori barik ez naiz ezer-eta".

Autobus txiki bat hartu Delhin, eta hara eta hona ibili ziren Indian: "Hurrengoan ez noa halakorik egiten. Ordu askoko bidaia egin genituen, eta lehertuta bukatzen nuen. Hobe da hegazkinean joatea hiri batetik bestera", dio Jonek. Delhitik Jaipur hirira joan ziren, eta beste erronka bati egin zion aurre, elefantean ibiltzeari. "Buruan nuen ezin izango nintzela ibili, eta uste baino samurragoa izan zen".




"Guk hiria ezagutu gura genuen, eta indiarrek nire aulkia; 200 lagun hurreratu zitzaizkidan"

"600 lagun erretzen dituzte Gangesen; hala ere, bertakoek zein turistek bainua hartzen dute"

Gauza asko ikasi ditu Jonek bidaian: indiarrek zein pozik bizi diren daukatenarekin bakarrik batetik, eta bidaia egiteko ez duela ezereen beharrik bestetik; "ingeleza jakitea da garrantzitsuena".

MIRARI ALTUBE



Shah Jahan printzeak emazteari eskainitako mausoleoa da Taj Mahal. Marmol zuriz dāgo egina eta ikusgarria da.



- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

Dorleta taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel. 943 79 94 15

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko martxoaren 18a / 202. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

'Ibarraundi museoa' zazpi lanen artean aukeratu du lehiaketako epaimahaiak

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aukeratu dute Ibarraundi jauregian egokituko duten museorentzako izen eta logotipoa. Arrasatear batek eginiko lana da eta *Ibarraundi museoa* izango da edukiko duen izena. Hala ere, oraindik aldaketaren bat egin dezaketela eman dute aditzera antolatzaileek.

Aukeratu dute Ibarraundi jauregirako izen eta logotipoa. Martitzenean elkartu ziren lehiaketako epaimahaiko kideak. Lan asko aurkeztu dituzte sariketara, zazpi guztira. Azkenean, Arrasateko Gorka Zubizarretak irabazi du 300 euroko saria.

Eskoriatzako museoak eta herriko Ondare eta Turismo Sailak antolatutako lehiaketako parte-hartzaileak adin guztietakoak izan dira. "Maila ona erakutsi dute lehiakideek orokorrean", eman dute aditzera sariketako antolatzaileek.

'IBARRAUNDI MUSEOA'

Arrasatearraren lanak Axtrokiko ontzi bat erakusten du. Nerea Aranaren esanetan, "lehiaketaren baldintzak zuzen jarraitu ditu ira-



Dokumentuen berretiketatzak lanak amaitu arte mailegu sistema etentzea dakar.

bazleak bere lana egiterakoan". Gainera, izen eta logotipoa toki berrira zuzen egokitzen dela azpimarratu du. Hala ere, lan hori oinarri hartuta zenbait aldaketa

egin ditzaketela eman dute aditzera antolatzaileek.

"Oraindik ez dakigu aldaketak egingo ditugun ala ez. Aldaketak emanda ere, Gorkaren lana izan-

go da oinarria eta aldaketa txikiak izango dira egingo genituzkeenak", eman dute aditzera. Momentuz, baina, Ibarraundi museoa izena eramango du.

*Gorka Zubizarreta
arrasatearrak
aurkeztutako lana
aukeratu du
epaimahaiak*

*Zazpi parte-hartzaile
izan ditu lehiaketak
eta oinarrietara
gehien egokitzen dena
aukeratu dute*

*Arduradunek
aldaketak egin
ditzakete, beti ere,
Gorkarena oinarri
hartuta*



Guraso Eskola abian da martitzen arratsaldetik

Martitzen eta eguenean Guraso Eskolako lehen saioak egin zituzten. Hamabi lagunek eman dute izena bertan esku hartzeko. Martxoan landu duten gaia *Dolu egoerak familiarian* izan da. Seme-alabekin besteak beste, heriotza eta banantzei buruz hitz egiteko gomendioak eman zizkien psikologoak hamabi eskoriatzarrei. Euren burua jantzi gura zuten lagunak elkartu ziren kultura etxean, eta egoera zailetan nola komunikatu ikasi zuten, besteak beste. /Z.V.M.

LABUR

Txontxongilo emanaldia bihar, Unibertsitatean

Bi ekimen zeuden iragarrita astebururako herrian. Bertan behera geratu da gaurkoa, egubakoitza. Creaciones Matxin taldekoek *Ni naiz the number one* antzeztu behar zuten.

Biharko, baina, txontxongilo emanaldia prestatu dute. Kilometroak 2005 egitarauaren barruko ekimena izango da. Bihar txontxongilo taldeak *Adarbakar urdina* lana antzeztuko du 18:00etan, Unibertsitatean. Hiru euro ordaindu beharko dute interesatuek sarreretatik.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

CAPOEIRA

Edinburghetik etorritako irakasle batek eskolak emango ditu gaur, 19:30etik 21:30era. Ondoren afaria Toki Alai tabernan. Bihar, 12:00etatik 15:00etara emango ditu eskolak, pilotalekuko gimnasioan.

PARROKIAKO BATZAR NAGUSIA

Gaur Eskoriatzako parrokiako urteroko batzar nagusia 19:30ean eta gura dutenek har dezakete parte.

ARETO FUTBOLA

Ohorezko ligako areto futbol partidua zapatuan kiroldegian. Eskoriatza KE, CDF San Martinen aurka, 18:00etan.

MENDI IRTEERA

Gellao eta Apotzaga aldera irteera, domekan 09:15etan Herriko plazatik.

MUSIKA ESKOLAKO IKASLEEN EMANALDIA

Martxoaren 23an, Luis Ezeizako aretoan Aste Santuko emanaldia. 18:30ean hasiko da.

1.300 HEKTAREA PRIBATU HARTZEN DITU EGITASMOAK

Alegazioak jarri dizkio Udalak Aizkorri-Aratz parke naturalari

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eskoriatzako Udalak zenbait alegazio jarri dizkio Eusko Jaurlaritzak egin nahi duen Aizkorri-Aratz parke naturalari. Izan ere, herriari dagozkion lur asko egitasmoaren barruan sartzen dira. Otsailaren 22an bidali zituzten Eusko Jaurlaritzara alegazioak.

Eusko Jaurlaritzak Aizkorri-Aratz parke naturala egiteko plana aurkeztu zuen 2004ko azaroaren 24an. Eta Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren asmoari hainbat alegazio jarri dizkio Eskoriatzako Udalak.

Aizkorri-Aratzko parkeak gutzira 19.000 hektarea izango ditu. Hala, egitasmoak herriari eragiten ziola ikusi eta Udalak zenbait alegazio egitea erabaki zuen. Izan ere, parkea egiteko beharko diren 1.500 hektarea Eskoriatzako bertakoak dira; 1.300 hektarea pribatu eta 200 hektarea publiko hartuko ditu Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak, Udalaren arabera.

Parkeak izango dituen 19.000 hektareetatik, 1.500 herrikoak izango dira

ALEGAZIOAK

Askotariko alegazioak aurkeztu zituen Udalak otsail amaieran. Alde batetik, parkea kudeatuko duen patronatuan egotea eskatu du. "Parkeak Eskoriatzako lurren zati handi bat hartuko du, eta derrigorrezkoa ikusten dugu guk bertan esku hartzea", eman dute aditzera Udaletik.

Bestalde, parkearen mugak berrikuskatzea eskatu diote Eusko Jaurlaritzari. Mugak zenbait lursailetatik igarotzen direla azaldu dute. Hori dela eta, ahalik eta errespetu handien izateko eskatu dio gobernuari alegazioetan udalbatzak. "Oraingo planteamenduarekin mugek bat egiten



Degurixa aldea ere parkearen baitan sartuko da.

ARTXIBOA

ez dutela ikusi dugu", adierazi dute Udaleko ordezkariak.

Hirugarren alegazio bat ere aurkeztu du Eskoriatzako Udalak. Aitzorroztz eta Uxar mendigune harritsuak babesteko neurri handiagoak hartzeko eskatzen dute bertan.

"Natura, paisaia eta arkeologia aldetik oso aberatsak diren tokiak dira, eta modu bereziz zaindu beharrekoak direla uste

dugu", eman du aditzera Juan Carlos Bengoa alkateak. Aitzorroztz, adibidez, Udalak 2,8 hektareako lursaila du. Horren barruan daude, esaterako, gotorlekuaren aztarnak.

Uxar aldean, berriz, iturburu bat du eta bertako ura hartzen dute herriko zenbait baserrik. Bertatik edaten zuten eskoriatzar guztiek Urkuluko urtegia egin zuten arte.



Emakumeen Eguna ospatzera 40 lagun joan ziren

Giro bikaina sortu zuten Eskoriatzako 40 lagunek zapatu gauean Gure Ametsa jate-txean. Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatu zuten eta ederto igaro zutela eman digute aditzera Amuskako lagunek. Izan ere, herriko emakume taldeak antolatutako afaria egin zuten. Afalostean, berriz, dantza egiteko aukera izan zuten. Musika jartzerari Inigo Madinabeitia aretxabaletarra igo zen eta goizeko ordu txikiak arte jai giroan egon ziren. /Z.V.M.

LABUR

Gernikako Arbolaren kimua Ibarraundin

Atzo eguna ospatu zuten Eskoriatzako Zuhaitzaren Eguna. Arbolak landatzea izan zen eguneko ekimen nagusia. Goizeko lehenengo orduetan ikastetxeetako ikasleak izan ziren protagonista. Izan ere, Torrebasoko lurretan gaztainondoak, urkiak eta lizarrak landatu zituzten. Ondoren, eguerdian, Ibarraundi jauregira joan eta ikasleek Udaleko ordezkariekin batera zapi urte dituen Gernikako Arbolaren kimu bat landatu zuten kanpoaldean.

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

BEIRALAN

B

KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

LAGUNAK
OSTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

Primeran igaro zuten elurretan herritik Candanchura joan ziren hogeit lagunek

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Asteburuan ibili ziren eskiatzen guraso elkarteko lagunak; 23 guztira. Gazte eta helduek kirolari bikainak direla erakutsi zuten, askok ipurdikoak hartu zituzten arren. Datorren urtean ere joan gura dutela azpimarratu dute bidaira joan zirenek.

Asteburuan joan ziren Guraso Elkarteko lagunak eskiatzera. Candanchurako bidaia autoz egin zuten. Batzuk hilaren 11n irten ziren eta beste batzuk 12an.

Eskiatzeko arropak eta eskiak jantzita, elurretan ibili ziren zapatuan eta domeka goizean. Ederto ibili ziren; ipurdikoren bat edo beste hartu zuten kirolari gazte-

ek. Baina baita nagusienek ere. Euren abilezia erakutsi zuten beraz; eskiatzeko abilezia eta erortzekoa, hain zuzen ere.

Iaz antolatu zuen GURELek lehenengoz elurretara irteera, eta datorren urteari begira ere joateko asmoa dutela eman dute aditzera bertatik.

ALDAKETAK LUDOTEKAN

Leintz Gatzagako ludotekan aldaketa bat egin dute Guraso Elkarteko lagunak. Egunean bi orduz irekitzen dute Garro jauregian dagoen lokala, 17:15etatik 19:15etara. Orain arte lehenengo ordua nagusiek erabiltzeko zen eta bigarren ordua, berriz, gaztetxoek erabiltzeko. Orain, gura dutenean joan daitezke Leintz Gatzagako gazteak ludotekara jolastera.



Izugarrizko gogoa zuten eskiatzera joateko eta primeran igaro dutela eman dute aditzera.

Ipurdiko mordoa hartu zituzten Leintz Gatzagako eskiatzaileek, baina ederto ibili ziren

Aldaketak ludotekan: irekita dagoen bi orduetan gura dutenean joan daitezke gazteak



Armarria jarri dute herriko pilotalekuan

Aurreko astean herriko pilotaleku gainaldean Leintz Gatzagako armarria jarri zuten. Aspaldiko nahia zen armarria jartzea, eta pozik daude Udaleko kideak, azkenean ipintzeko aukera izan dutelako. Iaz hasi ziren pilotalekuan zenbait aldaketa egin. Esaterako, haizerik eta zikinkeriarik ez sartzeko kristalak jarri zituzten goiko aldean. Beraz, aurrez hasitako lanen jarraipena dela eman dute aditzera Udaletik. Itxura ederra eman dio pilotalekuari. /Z.V.M.

LABUR

Partxis eta oka jokoan arituko dira bihar herriko gaztetxoak Labidea dendan

Partxis eta oka jokoetan aritzeko aukera izango dute bihar, zapatua, Labidea dendan bertan herriko gazteek. Bihar izango da, 17:30ean hasita. Aste osoan izena emateko epea zabalik egon da eta gaur izan da horretarako azken eguna. Sariak ere banatuko dituztela eman dute aditzera lehiaketako antolatzaileek. Zorte on eta ondo igaro dezazuela parte-hartzaile guztiek!

Korrika gauez igaro zen Leintz Gatzagatik eta euskararen alde korrika egin zuten

Jende ugari animatu zen eguazten gauean zapatilak eta txandala jantzi eta euskararen alde korrika egitera. Korrika 14 ibilbideko hainbat kilometro erosi dituzte aurten ere herriko hainbat elkarrek. Udalak eta Toki-Eder elkarteak kilometro bana erosi dituzte eta Sorginak taldeak GURELekin erdibana erosi zuen kilometroa. Korrika herritik igarotzen zen egunerako zenbait ekimen antolatu gura zuten hainbat herritarrek, afari bat, esaterako. Azkenean, baina, Korrika Txikia egin zuten eguerdian haur eskolako gaztetxoek.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

SUZUKI

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

SALON DE BELLETA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

Txalaparta
taberna



Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE PUBLIZITATEA
TEL.: 943 79 86 21

Ze barri?

Karapaixoa Garizumako opari goxoa



Aretxabaleta okindegia

Loramendi, 6 (943 77 17 19) eta Basabe, 2 (943 77 00 81)
Aretxabaleta. Bertako okina.



HARMAILATIK

Debagoieneko kirola Goiena Telebistan



**Ikusiko
duzu!**

Astelehenetan

21:00ean eta 22:00ean GOITBn

Aurkezlea: Julen Iriondo